

Kanalak

Gure kanalak propioak izango dira, hau da, aplikazio eta webgune baten bidez salduko ditugu gure produktuak eta webgune honek, aplikazioa promozionatzeko erabiliko dugu. Beraz, gure aplikazioa ezagutzen ez baduzu, gure webgunean informazio asko egongo da gure aplikazioari buruz esanez zer egiten dugun. Bertan kolaboradoreak, dudak, informazioa... aurkitu dezakezu.

Webgunea promozionatzeko erabiliko da noizbait norbait janzteko arazoak baldin baditu gure webgunea interneten aurkitzeko. Baina, baita ere sare sozialak erabiliko ditugu jende gehiago jakiteko nor garen eta zer egiten dugu. Gehienetan, Instagram edo Facebook aplikazioekin jendea gauza gehiagotaz ohartzen da, hortaz, honela ere zabalduko gara. Sare sozial hauetan, gure hobekuntzen argazkiak igotzen joango gara, eta baita markekin egingo ditugun kolaborazioak ere, ondoren gure aplikazioan saltzeko. Honela, marka mota bat gustatzen zaien pertsoneri erakarri egingo zaie eta gure aplikazioa deskargatuko dute.

Gure aplikazioan arropa erosteko lekua dagoenez ere, arropa hau erosleen etxeetara erman beharko da. Honetarako, kanpoko enpresa bat kontratatuko dugu garraioaz arduratzeko eta Espainiako edozein lekura eramateko arropa lehen bai lehen. Garraio-enpresa honek gure lokalera etorri beharko da, pertsona erositako arropa hartu, eta guk emandako helbidera eramango du erositako produktua.

Honetaz gain, ez dugu fisikoki ezer gehiago saltzen. Saltzen duguna aplikazioa da, eta guk markak promozionatuko ditugunez, markak guri ere promozionatuko digute. Pertsona ezberdinak ikusiko dute beraien gustuko markak gutaz hizketan daudela eta azkar-azkar gure aplikazioa deskargatuko dute eta erabiltzen hasiko dira.

Azken finean, ez dauka misterio handirik harreman kontua dena internet bidez egingo delako eta marketin enpresek lagunduko digutelako kolaborazioak egiten marka ezberdinekin eta sare sozialean aktiboak izango garelako.